
URDIÑARBE ORDIARP

MUSIKAREN EGUNA 25



OSTIRALE 06/06

EZTABAIDA

/////// Kültür Animazioaren Günea //////

18:00 **XIBEROKO ETXEGINTZA EGÜN ETA 2050 URTEAN**

ANTZERKI

////////////// CHISTERAN //////////

21:00 **LABORARI AZIA**

Antzerki ikusgarri horrek laborantxa mündüa dü gei bezala hartü eta lantü, honenbeste gaintietarik: laborantxan plantatzea, familiakoekila lanean aritzea, laborari izatea eta maitalagün bateki arrolat zea... horik oro ahalaz arraileriaz aipatzez ! Antzergintzala trebatzeko gisan, ikasaldi elibat plantatü dira 2013ko setemeretik haste, horietan parte-hartü düelarik Pierre Vissler, Pierre Sagardoy, Aurélie Solanille eta hamabost bat ikaslek.

ANTZERKI Gaü Eskolak emanik

Ostatü batetan... Sei ikasle, irakasle bat, bi bertsolari... Herri hizkuntza bat, ikusmolde desberdinak, zerentako? Nola? Berek izkiribatürik ! Hunkigarri ! Mezülari !

KAUTER ZINFONIA

Xiberoko soinü joile talde bat sortürik Müsikaren Egüna 20 gerenian. Txülüla, djembe, akordeoi, arrabit, gitarra... Alagera, bizi, giro ezarle !

ASTE OSOA ELIZAN

GAMELAN

JAVA eta BALIko soinü tresna bat da. Perkuzioa, xilofoia, txülüla berhezi... 15 bat lagün aritzen ahal dira batetan. Urdinarbeko elizan muntatürik date aste osoan eta Xiberoko eskola ezberdinek parte hartüko dire, Lagünarte elkarteak plantatü ikastaldietan.

NESKENEGÜN 06/07

GAZTE TOPAKETAk 25 ORENEZ

09:30 **Obren aurkezpena**

25 oren llabürpena kanaldudek filmatürik eta muntatürik zapping baten gisa projetatüko dügü.
Maiatzaren 24 ta 25ean, Xiberotar gazteek 25 orenez lantü dütüen projetüen aurkezpena.
Gogozketa edo asmo batez partitürik, 10 bat taldeek obra bat muntatü dire maiatzaren 24 ta 25ean. Gei nagusia: «Xiberotar gazteriak nola ikusten düan biharko Xiberoa». Hortarik lema desberdin elki da: Herrien berezitarzüna, eüskararen egoera, zer egin gure mozkinekin, Xiberoko aktualitatea (ekonomia, laborantxa)...

ARGAZKI, ANTZERKI, BIDEO, ARTE, MUSIKA KLIP, ESKU LAN ...

13:00 **Apaidü**

15:30 **Eztabada : «Gazteak beste eskualdetan»**

Beste eskualdetako gazte elibatek esplikatüko deiküe zer dinamiketan sartü diren, nola beren ideiak obratzen dütüen elkarte lanetan, etxe bizitzan, enpresa mündüan: ikusmolde kürützatze bat.

16:00 **GORKY «les balles populaires»**

Inkamina egite, historia kontatze eta jokü asmatze, hona Gorkyren mündüa zure haidürü. Gorky da hanitx kurritzen den personaje bat, jente kürütxatzen düana eta ametsetan sarrarazten. Hori nola egiten düan ? Pelota, mailü eta beste trastü elibatekila inkamina egitez, ber zoinean historia kontatzen ari delarik, berarenak diren historiak.



17:00 **BROKEN BROTHERS BRASS BAND** Euskal Herria

Broken Brothers Brass Banden müsika, karrika sonüztatzearen eta New Orléanseko jei eresiaren üztartze bat bezala da. Funk, Gospel eta Jazzetik hartzez debrüen airean ari dira, berek asmatzen dütüen ahaireak lau aizetara zabaltzez. Beren tarranta bereziarekin ixustean agertüko direlarik, jentea egiazki atzamanik dateke.



19:30 **Pintxo / Edari / Karaoke / Müsika eskola**
Musik'alde eta Oilarrak
Ezpela / Mutefish

22:00 **KONTZERTUAK**

FUMUT Euskal Herria

Fumut taldea Lazkaon sortü zen 2010 urte ingürüan. Lazkaotar eta Ordiziar kideez osatüriko taldea hasieran bertsio talde bezela hasi zen. Ondoren, kantü propiak idazten hasi ziren eta 2013 urtean eszenatokietara salto egiteko prest dira. Gozatu Eustoner rock-a!





DJ MOÏ MOÏ Euskal Herria

Eüskal Herriko MOÏMOÏ saldoak üda güziz plantatzen dü BALEAPOP FESTIBALA. Jeialdi horrek botitzen dütü müsika esperimental eta alagerazaleak, arte plastikoak, kürütxatzeak eta love vibration delakoa. Jenteen aitzinean ariko den artista batek eta MoïMoï Team-eko Djset-ak jente eta bazterrak harrotüko dütüe, rocketik elektroeala igaraitez.

11:00 **Aintzindariak / Xiberoko Zohardia / Zumba / Moneinak**
12:00 **Karrika müsika Ezpela / B Band**
12:30 **Koblakariak**
13:00 **Axurki bazkaria Ikastoleek zerbütxatürik**

15:00 **KONTZERTUAK DOHAINIK**

15:00 BROKEN BROTHERS BRASS BAND Euskal Herria

15:30 BEGIZ BEGI Euskal Herria

Algarri lotürik diren izadi eta gizadi elibaten aranatze, rockaren ulüntarzünaren eta folkaren eztitarzünaren arteko aurkiz aurkia, kültüra aberats eta barna baten misteroarekila nahasirik, holakoa da Begiz Begiren mündüa, argi-ülunekoa, ageri eta ezagerikoa.



19:00 ORCHESTRE NATIONAL DE BARBES Parise

World Music kentean sailkatzen ahal den sonülari saldo honek Maghreb esküaldeko (bereziki Algeriako) müsika süerte desbardinak – hala nola chaâbi, raï, gnaoua –, mündü osoan emaiten diren elibatekila – jazz, funk edo rock – botitzen dütü, ororen bürü sonüots oso berezi bat sortzez. Talde hontako arizaleak honenbeste herrialdetakoak dira: Frantzia, Algeria, Maroko, Tunisia, Portugal... Oslotik Tarbalano, Londresetik Montevideo artino, jenteak dantzan ari dira sonülari talde honen debrüen aireetan.



16:30 NIKO ETXART ETA HAPA HAPA Euskal Herria

Niko Etxart Eüskal rockaren aitzidaria da Hapa Hapa taldeko kideekin. Boskote horrekin hainbat urtez lan egin ondoan, bi disko plantatü dütüe: Gili-gilikatzen haut (1996) eta Minuette (2005).




21:00 POIL Lyon

Zinez ikusgarri eta entzüngarri, bai eta heintto bat harro ere... holakoak dütügü POIL saldoko hiru müsika joileak. Horiek ez dakie zer den debekü, müsikaren joitean pürü. Ordüan, hanitx sonü kente herrokatzen dütüe: combo-rock, müsika eztia nola bazterren zapartaraztearen heinekoa. Hirukote honek – taldearen izenak berak markatzen düan bezala – ilerik gabeko sonüari üko dio, eta Zappa, Frédéric Chopin edo Charlie Chaplin-en doinüak botitzez, bazterrak harrotzen deizkü. Ala mila debrüko aire hortan, behazaleak ez dira ez ekürü eta isilik egoiten...



17:45 MUTE FISH Irlanda

Irlanda, Lituania, Polonia eta Ukrainia herrialdeetarik jiten zaizkün müsika joileak biltzen dütü Mutefish taldeak. Müsika süerte hanitx emaitez – trad music, reggae, punk, zeltiko –, Mutefish-ek entzünaraziko deizkü sonüaldi zinez bereziak bai eta trad alternatiba gisa desbardinetakoak ere.



22:00 CHEVEU Bordale

Bordelen abiatü zen talde honen müsika süerteak blues, punk eta müsika elektronikoan dütü herroak lantatzen. Garage-rock, erritmo-mahain, teklatu psikedeliko sonü botitze bat eta sprechgesang maneratik hüllan den kantatzeko teknika bat... hori dira CHEVEU taldearen ezagügarriak. Europan, Ameriketako Estatü Batuetan eta Kanadan kurritürik, CHEVEU taldeak fama ejerra bildü dü rock independentearen mündüan.

